



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu”

2022ko irailaren 11
Urteko 24. igandea (C)

Lukas 15, 1-32.

Gainera, esan zien: “Gizon batek bi seme zituen. Gazteenak esan zion aitari: “Aita, emadazu dagokidan senipartea”. Eta aitak ondasunak banatu zizkien. “Handik egun gutxira, seme gazteenak, zituen guztiak bildurik, urrutiko herrialde batera alde egin zuen eta han, galdukerian biziz, ondasun guztiak jan. Dena xahutu zuenean, gosete ikaragarria gertatu zen inguru hartan eta estu aurkitzen hasi zen. Orduan, herrialde hartako gizon batengana joan zen morroi, eta hark bere sailetara bidali zuen txerrizain. Txerriek jaten zuten ezkurrez asetzeko gogoa ematen zion, ez baitzion inork jaten ematen. Orduan, pentsatzen jarririk, bere baitan esan zuen: “Zenbat langile gure aitarenean nahi adina ogi eta gehiago dutela, eta ni hemen goseak hiltzen! Jaiki, aitarengana joan eta esango diot: Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago semeizenik merezi. Har nazazu zeure langileetako bat bezala”. “Jaiki eta aitaren etxera abiatu zen. Oraindik urruti zegoela, ikusi zuen aitak eta errukitu egin zen; eta, lasterka joanik, besarkatu eta musuka hasi zitzaion. Semeak esan zion: “Aita, bekatu egin dut Jainkoaren eta zure kontra. Ez dut gehiago zure semeizenik merezi.” Aitak, ordea, esan zien morroiei: “Ekarri bizkor jantzirik onena eta jantziozue, ipiniozue eraztuna eta jantzi oinetakoak; ekarri zekor gizendua eta hil; egin dezagun festaotordua; zeren seme hau hilda bainuen eta piztu egin zait, galdua nuen eta aurkitu egin dut”. Eta festa hasi zuten. “Seme zaharrena soroan zen. Etxerakoan, hurbildu ahala, soinua eta dantzak sumatu zituen. Eta, morroi bati deiturik, zer gertatzen zen galdetu zion. Hark erantzun: “Zure anaia etorri da eta zekor gizendua hiltzeko agindu du zuen aitak, semea onik bereganatu duelako”. Biziki haserretu zen anaia eta ez zuen sartu nahi. Atera zen aita eta erreguka hasi zitzaion. Baina hark erantzun zion aitari: “Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzatzen zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; eta, horrako zure seme hori, zure ondasunak emagalduekin jan dituen hori, etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu”. Aitak erantzun zion: “Seme, zu beti nirekin zaude, eta nire guztia zeurea duzu! Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!”

“Bideari ekin eta aitagana itzuliko naiz”

PARABOLA BAT GAUR GAURKOA

Jose Antonio Pagola

Beste inongo parabolatan ez gaitu sarrarazi nahi izan Jesusek Jainkoaren misterioan eta giza izatearen misterioan gaurko honetan bezain sakon. Besterik ez da guretzat «Aita onaren» parabola hau bezain gaurko.

Seme gazteenak diotso aitari: «*emadazu dagokidan ondare-zatia*». Eskari hori egitean, aitaren heriotza ari da eskatzen hein batean. Libre izan nahi du, loturak eten nahi ditu. Ez du izango zorionik aita galdurik ikusi arte. Aitak amore eman du, hitzik esan gabe: libreki hautatu behar du semeak bere bidea.

Ez ote da hau gaur egungo egoera? Jende askok nahi du Jainkoari buruz libre izan, zoriontsu izan Aitaren presentzia begi-bistan izan gabe. Jainkoa ezkutarazi egin nahi da gizartetik eta jendearen bihotzetik. Eta, parabola horretan bezala, Aita isilik dago. Jainkoak ez du inor behartzen.

Semea «*urruneko lurralde batera*» doa. Beste lurralde batean bizi nahi du, aitagandik eta familiagandik urrun. Eta alde egiten dakusa aitak, baina ez du utzi nahi semea bertan behera; aitaren bihotza bidelagun izango du semeak; goizero egongo da aita haren zain. Gaur egungo gizartea gero eta urrunago doa Jainkoagandik, haren agintetik, hartaz oroitzetik... Eta ez ote dugu Jainkoa bidelagun, gu hura begi-bistik galdu nahian gabiltzala?

Handik laster «*galdukerari*» lotuko zaio semea. Jatorrizko hitzak galdukeria moralaz gain biziera osasun gabea, zoroa, kaotikoa iradokitzen du. Denbora gutxira, haren abentura drama bilakatzen hasiko da. «*Izugarrizko gosea*» sortu da eta, gizon arrotz baten esklabo, txerriak zaintze aldera lortu du bizitzea. Bizi duen tragedia adierazten dute haren hitzek: «*Ni hemen goseak hiltzen!*»

Barne hutsunea eta maitasun-gosea dirateke Jainkoagandik urrun bizitzearen gure lehen zantzuak. Ez da gauza erraza askatasunaren bidea. Zer falta zaigu? Zerk bete lezake gure bihotza? Kasik dena dugu geure esku, nolatan sentitzen dugu halako gosea?

Gaztea «*bere baitara itzuli zen*» eta, bere hutsuneaz gogoeta eginez, aitaren aurpegiaz gogoratu zen, hura ogi-ugaritasunarekin lotuz: aitaren etxean «*badute ogia*» eta «*ni goseak hiltzen*». Barnean beste askatasun baten gogoa erne zaio, aitaren ondokoa. Bere okerra aitortu du eta erabakia hartu: «*Bideari ekin eta aitagana itzuliko naiz*».

Jainko geure Aitaganako bidea hartuko ote dugu? Askok hartuko luke bidea Jainko hori ezagutuko balu, Jesusen parabola honen arabera «*semeari bidera korrika atera zaiona, besarkatu eta zoratzear musuka hasi zaiona*» den Jainko hori ezagutuko balu. Besarkatze eta musu emate horiek teologia guztia baino argiago mintzo dira. Jainko horren ondoan askatasun duinagoa eta zoriontsuagoa izango genuke.